

KOSTUEN EGITURA

Kostueri dagokionez, hainbat dira kontuan hartu beharreko kontuak. Lehenik eta behin, lokal bat edukiko genuen. Honetarako Oñatiko udaletxeekin kontaktuan jarriko ginateke, honek, enpresa berriei lokalak 50€-tan alokatzen diete eta. Ondorioz, hasieran batean 50€ ordainduko genuen eta ondoren gure produktuak arrakasta izanez gero lokal gehiago hartuko genituzke.

Horretaz gain, giltzarrapo eta aterkiak erosiko genituzke eta ondoren, hauek, elkar lotzeko eta beraien formak bat egiteko makina bat erosiko genuke. Makina horiek zulaketa prozesu batekin, aterkia modu egokian gelditzea lortuko luke. Beranduago diru gehiago lortzen joan ahalaz, gehiago erosten joango ginateke.

Soldatei begiratzuz, makina hauetan lan egingo luketen espezialistek ere kostu bat edukiko lukete eta kostu hori, eguneko 60€-koa izango litzake. Hasieran, ez dakigunez enpresak arrakastan izango duen, lan gile bat izango dugu eta ondoren, hauen kopurua handitzen joango da

Horrez gain, gure aterkien eskaerei erantzuteko, hauek garraiateko modu bat egongo litzake eta horretarako, garraio-enpresa bat kontratatuko genuke. Baina, enpresa honen izango dituen gastuak, bezeroak ordainduko dituzenez, ez da gure kostuen barnean sartuko kasu gehienetan. Hala ere, kanaletako atalean azaldu dugun bezala, 5 guardasol baino gehiagoko eskaera eginez gero, kostuak guk ordainduko ditugu. Honetarako, garraio-enpresarekin zuzenean kontaktuan jarriko gara.

Gure kostuak eta irabaziak kalkulaturik, aterki bakoitzaren balioa eta giltzarrapoaren balioak, eskulana, zulagailua eta aterkien muntaia kontuan hartuta, kostu guztien batura, 4340€-koa izango litzateke. Irabazi guztiak, hau da, aterki guztiak salduz gero lortuko genukeen dirua, 9000€ izango lirateke eta beraz, irabazi-marjina 4660€-ko izango da. Ondorioz, taldekide bakoitzak hasiera batean egin duen inbertsioa berrezkuratzeaz gain, 1165€ irabaziko lituzke. Enpresak aurrera jarraituko balu, irabazi-marjina igotzen joango zen taldekide bakoitzeko.